

2017ko AZAROAREN 30ean UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO
OSOKO BILKURAREN AKTA 11 zk.

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2017ko azaroaren 30ean, iluntzeko zazpietan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Bertaratutako zinegotziak	Maite Garrastazu and. Jesus Arana Gomez jn. Nekane Iribar Iriondo and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Iban San Martin Hernandez jn. Miren Letamendia Belloso and. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Koldo Uribarri Zenekorta jn. Mikel Goenaga Gubia jn. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Xabier Vazquez Izquierdo jn. Ane Arruti Lopetegi and. Gloria Vazquez Herranz and. Patxi Elola Azpeitia jn. Ana De Benito Sanz and. Oihane Delgado Pita and.
Ez dira etorri	Naiara Carvajal Larrañaga and. Aitor Korta Etxabe jn.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
Kontu-hartzailea	Lioba Maiza Rekondo and.

Osoko bilkura hasi aurretik, **alkate** jaunak, bere izenean eta gorporaziokide guztien izenean, zorionak eman dizkio NAIARA CARVAJAL LARRAÑAGA zinegotzi andeari bere amatasunagatik.

Aldi berean, jakitera eman du EH BILDU udal taldeko zinegotzi **Naiara Carvajal Larrañaga** andreak bere botoa eskuordetzan utzi diola taldeko bozeramaileari, Mikel Goenaga jaunari, amatasun atsedenaldi horrek irauten duen bitartean; eta hori,

apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, aurreikusitakoaren arabera.

Jarraitu du **batzarburu** jaunak eta, gai-zerrendari heldu aurretik, Udalbatzak adostutako ADIERAZPEN INSTITUZIONAL hau irakurri du, abenduaren 3an Euskararen Eguna dea eta:

2017KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENA

Euskara auzolan

Euskarak lankide nahi eta behar gaitu, urtean 365 egunez

Euskara urtean egun batez dugu ospakizunerako gai, eta 365 egunez langai. Elkarlanerako gai. Adostasunerako gai. Eta ospakizun eguna baliatu nahi dugu, hain zuzen, ilusioaren hauspoa haize berriz betetzeko. Indar berriez sendotzeko denon eginahala. Hori behar baitu euskarak, hori behar baitugu euskara guztion ezpainetan, kaleetan, etxeetan, ziberespazioan, lantokietan, pantailetan, paperetan nahi dugunok: ilusioa. Eta elkarlana. Auzolana.

Ilusioa eta elkarlana, inork garai likidotzat definitu dituen gure gaurko hauek euskaltzaletasunez borborka jartzeko.

Ilusioa eta elkarlana, euskararen lurralde eta esparru juridiko guztietan ahalik eta erarik bateratuenean gure hizkuntzarentzat etorkizun bizia irabazteko. Elkarrenganako adeitasunez. Elkartasunez.

Ugari izan dira eta dira han-hemengo herritarrek euskara eskuratzeko eta lantzeko egindako ahaleginak. Hor dugu euskarak elikagai ezinbestekoa duen euskaldun berri andana itzela. Hor ditugu seme-alabak euskaraz ikas dezaten nahi izan duten guraso erdaldunak. Hor ditugu dakiten euskara ezpainetan dantzatzen ahalegintzen direnak...

Zenbat halako azken hamarkadotan: zenbat ahalegin pertsonal zein kolektibo, publiko zein herri ekimenekoak. Horiei guztiei zor diegu euskarak bizi duen errealitatea.

Orain, eta hemendik aurrerako urteetan, euskararen erabilera etengabe eta bizi-bizi areagotzea dugu langintza nagusi, ezagutzaren handitzearekin batera euskararen aldeko hizkuntza ohituren aldaketa sakona gauzatu dadin. Mingainak dantzan jartzeko premia dugu, eta, bistan denez, mundu aldakor honetan, kantu eta kontu berriak behar ditugu horretarako.

Bide berriak, bide guztiak

Hala nahi zuen jokatu Lizardi handiak literaturgintzan. Hala behar du euskarak. Halaxe behar du euskalgintzak ere.

Emankor gertatu dira, bistan denez, ibilitako bide asko. Eta elkarlana da emankortasun hori auzolanean areagotzeko giltzarria.

Une aproposa da administrazioek eta herri ekimenak auzolanean bide berriak zabaldu, eta gehiago soziala euskararen alde egotetik euskararen alde egitera eramateko. Euskara erabiltzera eramateko.

Une aproposa da euskararen lurralde eta eremu guztietako herri aginteen arteko lankidetzaren bidetik sendotzeko. Erabileraren mesedetan. Eta euskarak elkarlan horien guztien premia du. Ezinbestez.

Ideen konfrontazioari uko egin gabe, irtenbideak adostuz, bakoitzaren eginkizun eta erantzukizunetik errespetuz, elkarrenganako leialtasunez, eta denok norabide berean bultzatuz.

Bakarka ezinezkoa da. Auzolanean, guztiz ilusionagarria.

365 egun

Musikari bakar batek ezin du orkestra oso baten doinua aldatu, zuzendariaren eta gainontzeko musikariaren laguntza gabe. Euskal hiztun bakar batek nekez aldatuko ditu hizkuntza ohiturak, gizartearen babesik izan ezean.

Hizkuntza ohiturak aldatzeko bide luzean, euskararen aldeko gehiago soziala aktibatu behar: euskararen lurralde guztietako administrazioak zein herri ekimena. Lurralde eta eremu guztietako erakundeak. Gizarte ekimeneko euskalgintzako taldeak zein bestelako esparruetakoak. Euskaldun osoak, euskaldun hartzaileak eta erdaldunak.

Malgutasunez. Herri bakoitzaren errealitatera egokituz. Tokiko eragileekin urratsak adostuz. Parte hartzaile guztiak ahaldunduz.

Euskaltzaletasunaren sua indartuz hala Angelun nola Andoainen, Barkoxen zein Barakaldon, Eltziegoren eta Erronkarin.

Auzolana da bide bakarra. Hizkuntza ohituren aldaketa kolektiboa izanen da ala ez da izanen.

Euskararen Eguneko gure konpromisoa, datozen 365 egunotan izan dadin lan egitea. Auzolanean lankide zintzo.

Euskara auzolana baita.”

Ondoren, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

GAI-ZERREDA

1.- 2017ko URRIAREN 26ko BILKURAREN AKTA ONARTZEA

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:

– 2017ko urriaren 23tik azaroaren 24ra

Segidan, Alkatetzak 2017ko urriaren 23tik azaroaren 24ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

3.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:

– 2017ko urriaren 23tik azaroaren 20ra

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko urriaren 23tik azaroaren 20ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

4.- “DIRU-LAGUNTZA: CEAR EUSKADI” PARTIDAREN KREDITUA ERABILTZEA “DIRU-LAGUNTZAK: KOOPERAZIOA” PARTIDA FINANTZATZEKO.

2017 D 200 0013 espedientea

Gizarte Zerbitzuen Departamentuak 2017ko aurrekontuetan 28.000 euroko partida bat dauka CEAR-EUSKADI erakundeari diru-laguntza izenduna bat emateko.

Estatuko Administrazioak finantzatzen ez dituen gastuak bakarrik ordain ditzake Udalak; horregatik, Alkatetzaren 2017ko ekainaren 19ko 0873 Dekretuaren bitartez CEAR-EUSKADiri emandako diru-laguntza 8.000 eurokoa izan da, eta ez hasieran aurreikusitako 28.000 eurokoa. Ondorioz, aurrekontu-partida horretan (0503.481.07.231.90.2017 zk.) 20.000 euroko gerakina dago.

Bestalde, Kooperazio arloko diru-laguntzei zuzendutako partida (0503.481.06.231.90.2017 zk.) ia agortuta dago. Izan ere, partida horretan dagoena ez da nahikoa urte bukaera baino lehen Udalak laguntza humanitariorako jaso ditzakeen eskaerei erantzun ahal izateko.

Aurrekontuan bi partidak lotuta daudenez, ez da kreditu-aldaketarik egin behar.

Horrenbestez, Antolakuntzako informazio-batzordearen proposamena ikusi ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

“DIRU-LAGUNTZA: CEAR-EUSKADI” 1 0503.481.07.231.90.2017 (5142) partida izendunetik 20.000 euroko kreditua erabiltzea “DIRU-LAGUNTZAK: KOOPERAZIOA” 1. 0503.481.06.231.90.2017 (5141) partida finantzatzeko.

5.- KREDITU KONPROMISOAK ONARTZEA

2017 D 200 0006 espedientea

Konpromiso kredituen espedientea tramitatu du Udalak.

Ikusita kontu-hartzaileak egin duen txostena, eta Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak aho batez,

ERABAKI DU

KONPROMISO KREDITUEN ESPEDIENTEA onartzea, honako laburpen honen arabera:

PARTIDA	AZALPENA	KOPURUAK ETA EKITALDIAK			GUZTIRA
		2017	2018	2019	
5 1102.601.00.172.00	Iñurritza erreka ingurua hobetzea	-40.000,00 €	-344.503,61 €		-384.503,61 €
	Azken Portu Goiko igogailua	-204.132,81 €	247.000,00 €		42.867,19 €
	Alde Zaharreko peatonalizazioa	10.753,45 €			10.753,45 €
	Modelo Aretoa	446.848,12 €	771.600,00 €		1.218.448,12 €
	GUZTIRA				887.565,15 €

Beraz, konpromiso kredituen eranskina ondorengoa litzateke:

KONPROMISO KREDITUEN ERANSKINA

(21/2003 Foru Arauaren 6.1.e artikulua)

PARTIDA	AZALPENA	KOPURUAK ETA EKITALDIAK			GUZTIRA
		2017	2018	2019	
5 1102.601.00.172.00	Iñurritza erreka ingurua hobetzea		10.000,00 €	768.549,19 €	778.549,19 €
	Azken Portu Goiko igogailua	295.867,19 €	550.000,00 €		845.867,19 €
	Alde Zaharreko peatonalizazioa	410.753,45 €	423.000,00 €		833.753,45 €
	Modelo Aretoa	446.848,12 €	771.600,00 €		1.218.448,12 €
	GUZTIRA				3.676.617,95 €

6.- ARITZBATALDE KIROLDEGIA HANDITZEKO HIRI-BERRIKUNTZAKO PLAN BEREZIA (8-2 AREA -OD ZUZKIDURAKO ARITZBATALDE-). BEHIN BETIKO ONESPENA.

2017 H 700 0003 espedientea

2017ko irailaren 25ean egindako bilkuran, Zarauzko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen hasierako onespena ematea ARITZBATALDE KIROLDEGIA HANDITZEKO HIRI-BERRIKUNTZAKO PLAN BEREZIAREN proiektuari.

Espedientea jendaurrean egon zen. Ez zen alegaziorik aurkeztu.

Plan berezia Lurraldeko informazio-batzordearen irizpena jaso zuen.

Aztertu eta eztabaidatu ondoren, 20 zinegotziren aldeko botoarekin eta, beraz, legezko gehiengo osoaren quorum-arekin, Udaltzarrak

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Behin betiko onespena ematea ARITZBATALDE KIROLDEGIA HANDITZEKO HIRI-BERRIKUNTZAKO PLAN BEREZIARI. Zarauzko Udalak berak abiarazi du espedientea.

2017ko irailaren 19koa da onartutako dokumentua; Hirigintza eta IngurumenEKO Departamentuak idatzi zuen.

Bigarrena.- Onartutako dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundiaren hirigintzako plangintzaren erregistro administratibora bidaltzea. Horren ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira behin betiko akordioaren testu osoa eta ordenantza partikularrak. Halaber, behin betiko onspeneko akordioa lurralde historikoan gehien zabaltzen den egunkarian argitaratuko da.

7.- ZARAUTZ HILETA ZERBITZUAK SA SOZIJETATEAREN ESTATUTUEN ALDAKETA ONARTZEA

2017 IIII 0018 espedientea

Akordio-zirriborroa irakurri ostean, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Kontrako botoak:	2	(2 Irabazi Zarautz
Abstentzioak:	6	(6 EH Bildu)

Ondorioz, adierazitako gehiengoarekin, Udaltzarrak erabaki hau hartu du:

“ZARAUTZ HILETA ZERBITZUAK SA sozietateak, kargua utziko duen Administrazio Kontseiluko presidentearen bitartez, bere estatutuak aldatzeko proposamen bat bidali du udal honetara. Helburua da, alde batetik, akzioak transmititzeko araubidea Kapital Sozietateen Legea egokitzea eta, bestetik, Zarauzko Udalaren jabetzakoak diren A) serieko akzioak transmititu ahal izatea, gaur egun transferiezinak baitira.

Sozietatearen estatutuen 13. artikuluari idazkera berria eman nahi zaio, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak, Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duenak, 123. artikuluan aurreikusitakora egokituta. Horren helburua da sozietatearen akzio guztiak transmitigarriak izatea, Zarauzko Udalaren jabetzakoak diren A) serieko 30 akzioak gaur egun transferiezinak baitira.

Gaur egun sozietate anonimoei aplikatu beharrekoa den legedian akzioen transmisio askea da printzipio orokorra, eta salbuespena, berriz, transmisioa murrizten duten klausulak, izan ere, klausula murriztaile horiek Kapital Sozietateen Legearen 123. artikuluan xedatutakoa errespetatu beharko dute, eta, hortaz, akzioak ia transferiezinak bilakatzen dituzten estatutuetako klausulak baliogabeak izango dira.

Ikusita udaleko idazkari nagusiak eta kontu-hartzaileak egin dituzten txostenak, Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, botoen gehiengoarekin,

ERABAKI DU

Lehena.- Adostasuna agertzea ZARAUTZ HILETA ZERBITZUAK SA sozietatearen estatutuen 13. artikulua aldatzeko proposamenari, ondoren zehazten den moduan:

Gaur egun 13. artikulua honela dago idatzita:

“Las acciones serie B) ordinarias, solo serán libremente transmisibles tanto por actos inter vivos como mortis causa al cónyuge y demás parientes por consanguinidad o adopción del segundo grado civil, ya lo sean en línea recta, descendente, ascendente o colateral, rigiendo en las transmisiones mortis causa a falta de testamento las normas sucesorias del Código Civil. En los demás casos se estará a lo dispuesto en los apartados siguientes:

a) *Cuando un socio con acciones comprendidas dentro de la serie B ordinarias desee enajenar sus acciones deberá poner su decisión en conocimiento del Consejo de Administración de la Sociedad, el cual dentro de los quince días siguientes al de la notificación lo hará saber a los demás socios para que en el plazo de treinta días contados a partir de la fecha de comunicación del Consejo, haga uso del derecho de preferente adquisición sobre las acciones enajenadas.*

En caso de ser varios los socios que pretendan ejercitar tal derecho, las acciones objeto de transmisión se prorratearán en proporción a los respectivos capitales.

b) *En los propios términos y en igual plazo a partir del momento en que la Sociedad tenga conocimiento de la sucesión, ostentarán los accionistas mencionados en el apartado anterior el derecho de opción de compra en las transmisiones mortis causa a persona distinta del cónyuge o de los parientes comprendidos dentro del segundo grado civil.*

c) *El valor de las acciones a los efectos del ejercicio de los derechos de preferente adquisición reconocidos en los apartados anteriores, será determinado por tres peritos, nombrados, uno por el adquirente o*

adquirentes, otro por el enajenante, un tercero por el juez, quienes habrán de fijar la valoración en función de la situación patrimonial de la misma.

En el supuesto de que la enajenación de las acciones se llevara a cabo sin tener en cuenta la normativa establecida en los apartados anteriores, en orden al derecho preferente de adquisición, la Sociedad no reconocerá la transmisión efectuada por estar afectada de nulidad.”

Orain 13. artikulua honela idatzita geratuko da:

“Será libre la transmisión de acciones tanto de la serie A como de la serie B, realizadas por actos inter vivos o mortis causa, tanto a título oneroso como a título gratuito, entre accionistas, así como la realizada a favor del cónyuge, ascendiente o descendiente del accionista o a favor de sociedades pertenecientes al mismo grupo que la transmitente, entendido en los términos establecidos en el artículo 18 de la Ley de Sociedades de Capital.

En todas las transmisiones de acciones realizadas por actos inter vivos tanto a título oneroso como a título gratuito, que no estén expresamente excluidas en virtud de lo dispuesto en el párrafo anterior, los accionistas y, en su defecto, la Sociedad, tendrán un derecho de preferencia para la adquisición de las acciones que se pretenden transmitir en proporción a su participación en el capital social.

El accionista que se proponga transmitir (el “**Accionista Transmitedor**”) sus acciones o alguna de ellas (las “**Acciones a Transmitir**”) deberá comunicarlo al Órgano de Administración de la Sociedad por escrito, a través de cualquier medio que permita tener constancia expresa de su recepción, y haciendo constar el número, las características de las Acciones a Transmitir, la identidad del potencial adquirente (detallando en su caso, cuáles son sus socios y a qué grupo pertenece) y los términos y condiciones de la transmisión, incluyendo precio, plazo y forma de pago (el “**Acuerdo de Transmisión**”).

El Órgano de Administración dispondrá de un plazo de cuatro (4) días desde la recepción del Acuerdo de Transmisión para comunicarlo a todos y cada uno de los demás accionistas en el domicilio que conste en el Libro Registro de Acciones Nominativas. Estos, dentro de los cinco (5) días siguientes, podrán comunicar su decisión de ejercitar su derecho de adquisición preferente respecto de todas o alguna de las Acciones a Transmitir en los términos que a continuación se indican.

Si fueren varios los que ejercitaren su derecho, se distribuirá entre ellos a prorrata de su participación en el capital social, atribuyéndose, en su caso, los excedentes de la división, al accionista titular de mayor número de acciones, en caso de empate, el más antiguo y en caso de empate, por sorteo.

Transcurrido dicho plazo de cinco (5) días sin que ninguno de los accionistas hiciera uso de su derecho o sin que este hubiera sido ejercitado en relación a la totalidad de las Acciones a Transmitir, la Sociedad podrá, en su caso, adquirir para sí las acciones que no hayan sido objeto del derecho de adquisición preferente dentro de un nuevo plazo de siete (7) días a contar desde la extinción del plazo anterior, respetando en todo caso la normativa de autocartera aplicable. En tal caso, si fuera necesaria la convocatoria de una Junta General de Accionistas de la Sociedad, el plazo anterior de siete (7) días para la adquisición de las acciones por la Sociedad se interrumpirá por el periodo que medie entre la debida publicación de su convocatoria y la fecha de celebración de la Junta. En ningún caso la publicación de los anuncios de convocatoria podrá demorarse más de seis (6) días desde la extinción del plazo de cinco (5) días para el ejercicio del derecho de preferencia de los accionistas. Tampoco podrán mediar más de treinta y cinco días (35) días entre la fecha de publicación de los anuncios de convocatoria y la celebración de la Junta General.

El precio de las Acciones a Transmitir, la forma de pago y las demás condiciones de la operación serán las convenidas y comunicadas a las Sociedad por el Accionista Transmitedor, si bien, en caso de discrepancia en el precio entre el Accionista Transmitedor y los accionistas

que deseen ejercer su derecho preferente de adquisición o la Sociedad, la cantidad a satisfacer al Accionista Transmitente por las Acciones a Transmitir será el valor razonable en el día en que se hubiera comunicado a la Sociedad el Acuerdo de Transmisión.

En los casos en que la transmisión proyectada fuera a título oneroso distinto de la compraventa o a título gratuito, el precio de adquisición será el fijado de común acuerdo entre las partes y, en su defecto, será el valor razonable en el día en que se hubiera comunicado a la Sociedad el Acuerdo de Transmisión.

A los efectos de este artículo, se entenderá como valor razonable el que determine un experto independiente, distinto al auditor de la Sociedad, que, a solicitud de cualquier interesado, nombren a tal efecto los administradores de la Sociedad. Los gastos del experto independiente correrán de cuenta y cargo de la Sociedad.

La transmisión deberá tener lugar en el plazo de un (1) mes a contar desde la comunicación por la Sociedad de la identidad del adquirente o adquirentes.

El Accionista Transmitente podrá enajenar las Acciones a Transmitir en las condiciones comunicadas a la Sociedad, cuando hayan transcurrido dos (2) meses desde que se hubiera puesto en conocimiento de la Sociedad el Acuerdo de Transmisión sin que la Sociedad le hubiera comunicado la identidad del adquirente o adquirentes.

En el caso de transmisiones mortis causa de acciones, el mismo derecho de adquisición preferente regulado en los párrafos precedentes será de aplicación en las transmisiones de acciones mortis causa, respetándose, en tal caso, lo dispuesto en el artículo 124 de la Ley de Sociedades de Capital. En estos supuestos, la comunicación al Órgano de Administración podrá efectuarla indistintamente el heredero, el legatario, el administrador de la herencia o la persona que haga sus veces y se iniciará el cómputo de los plazos desde el momento de dicha comunicación. Se entenderá como valor razonable el del día en que se solicitó la inscripción de la transmisión mortis causa.

En las transmisiones forzosas, habrá lugar al ejercicio del derecho de adquisición preferente a que se refiere este artículo estatutario, aun en el caso de embargo o ejecución forzosa a instancias de tercero, o como consecuencia de cualquier procedimiento judicial o administrativo de ejecución sobre acciones de la Sociedad o derechos inherentes a dichas acciones, por cualquier causa, siendo de aplicación, en tales supuestos, lo previsto en los artículos 124 y 125 de la Ley de Sociedades de Capital. Se iniciará el cómputo de los plazos desde el momento en que el rematante o adjudicatario comunique la adquisición al Órgano de Administración.

El régimen de transmisión de las acciones será el vigente a la fecha en que el accionista hubiere comunicado a la Sociedad su propósito de transmitir o, en su caso, en la fecha de fallecimiento del accionista o en la de la adjudicación judicial o administrativa.

Las transmisiones de acciones que no se ajusten a lo previsto en la Ley de Sociedades de Capital y a lo establecido en los presentes Estatutos no producirán efecto alguno frente a la Sociedad.”

Bigarrena.- Erabaki honen berri ematea ZARAUTZ HILETA ZERBITZUAK SA sozietatean kargua utziko duen Administrazio Kontseiluko presidenteari.

8.- GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAREN BARRUAN DAUDEN GIPUZKOAKO ADMINISTRAZIOEN EREMUAN, BIDAIA-RIEN ERREPIDE BIDEZKO GARRAIO-ZERBITZU PUBLIKO

ERREGULARRAK HARMONIZATZEKO ERREGELAMENDUAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA.

2014 I 133 0003 espedientea

2013ko martxoaren 4an, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak Gipuzkoako Lurralde Historikoko tarifa-sistema bateratua ezarri zuen, eta horretarako abiapuntua txartel bakarraren eredu eta oinarri teknologikoa izan ziren, Gipuzkoako Foru Aldundiak LURRALDEBUS marka erabilia arrakastaz garaturik.

Tarifa bateratuaren ondorioa den Gipuzkoako bidaiarien garraio publikoaren esparru berrian egiaztatu zen beharrezkoa zela zerbitzua arautzen duten arauak onartzea eta egokitu edo aldatzea, gipuzkoar guztiek eskubide eta betebeharrak izan ditzaten, garraioaren eskumena norena den edo zerbitzua nori ematen duen alde batera utzita. Halaber, zerbitzua ematen duten garraio-eragile guztiek zerbitzu hori emango dute arau-esparru bakar baten barruan. Partekatutako arau-esparru horrek garraio-eragileak diren enpresen betebeharrak ezarriko ditu, eta orain arte araudirik ez zegoelako edo izatezko hipotesi batzuk ez aurreikusteagatik zeuden hutsuneak konpondu egingo ditu, eta zerbitzua emateko orduan behar den segurtasun juridikoa emango die eragileei.

2015eko martxoaren 15ean indarrean sartu zen GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAREN BARRUAN DAUDEN GIPUZKOAKO ADMINISTRAZIOEN EREMUAN, BIDAARIEN ERREPIDE BIDEZKO GARRAIO-ZERBITZU PUBLIKO ERREGULARRAK HARMONIZATZEKO ERREGELAMENDUA.

Beranduago, Lasarte-Oriako eta Tolosako Udalbatzek onartu zuten.

Erregelamendu honen xedea da Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Partzuergoaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen titulartasunekoak diren bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularraren ematea era bateratu eta homogeen arautzea.

Erakunde parte-hartzaileek honako konpromezua hartu zuten: aldaketak egitekotan, hauek GGLA Partzuergoaren Asanblada Orokorraren baitan burutzea.

2017ko urriaren 31n Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Partzuergoaren Asanblada Orokorrak, aho batez, Gipuzkoan burutzen diren bidaien doakotasuna 6 urte arte zabaltzea onartu zuen. Aldaketa honen ondorioz, aitatu erregelamendua aldatu behar da, honek doakotasuna 5 urte arte aurre ikusten du eta.

Hau guztia dela eta, Zarauzko Udaleko Udalbatzaren osoko Bilkurari dagokio Erregelamenduaren atalen aldaketa onartzea, non Zarauzko hiri-autobusean bidaiatzeko doakotasun adina adierazten den.

Proposatutako aldaketari buruzko txostena egin du Udaleko idazkari nagusiak.

Horiek horrela, ikusita Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Partzuergoak egindako proposamena, eta Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- Onartzea doako bidaiak egitea 6 urtera arteko haurrentzat, eta horretarako aldatzea GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAREN BARRUAN DAUDEN GIPUZKOAKO ADMINISTRAZIOEN EREMUAN BIDAIARIEN ERREPIDE BIDEZKO GARRAIO-ZERBITZU PUBLIKO ERREGULARRAK HARMONIZATZEKO ERREGELAMENDUAREN atalak, non aurre ikusten den bidaien doakotasuna 5 urtera arte, 6 urtera jarriz. Hau guztia Zarauzko eskumen-eremuan eta udalaren mugatze geografikoan.

Bigarrena.- Aurre aipatutako 5 urtetan 6 urtetan seinalatzen den erregelamenduaren aurreikuspen guztiak ordezkatzeko 17. artikuluan 3. atala izan ezik.

Aldatu diren atalak honako hauek dira: zioen azalpena, V atala, 3. artikulua definizioak, 17. artikulua adintxikien garraioa eta 44. artikulua baliozko garraio titulua eramateko derrigortasuna.

Hirugarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Laugarrena.- Onartzea informazio publikoaren fasean jasotako alegazioak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Partzuergoaren baitan modu bateratuan informatzea.

Bosgarrena.- Alegaziorik aurkeztu ezean, erregelamenduaren aldaketa behin betiko onartutzat hartuko da, berariazko erabakirik hartu beharrik izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratu beharko da.

Seigarrena.- Erabaki hau Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Partzuergoari jakinaraztea.

Une honetan **kontu-hartzaile** andrea bilkutatik joan da.

– UDAL TALDEEK AURREKONTU-EGONKORTASUNARI BURUZKO LEGEAREN INGURUAN AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK

9.- Irabazi Zarautz udal taldeak: Ogasun Ministerioaren esku-hartze finantzarioaren aurrean Madrilgo Udalari babes emateko eta gastu-arauaren erregulazioaren aldaketa eskatzeko mozioa

2017 O 001 0030 espedientea

10.- EH Bildu udal taldeak: Aurrekontu-egonkortasunari buruzko Legea indargabetzea

2017 O 001 0031 espedientea

Aztergai honetara iritsita, udal talde aurkezle bakoitzak atzera egin eta aurkeztutako mozioa kendu du gai-zerrendatik. Ondoren, hasierako haien ordeztu, elkarren artean adostutako beste mozio hau aurkeztu dute:

9.- EH BILDU ETA IRABAZI ZARAUTZ UDAL TALDEEK ADOSTUTAKO MOZIOA

EH Bildu eta Irabazi Zarautz udal taldeek aurkeztutako mozio hau irakurri du idazkariak:

AURREKONTU EGONKORTASUNARI BURUZKO LEGEA

Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legearen aplikazioa eta haren garapenak ezartzen dituen mugak Tokiko Erakundeen, beren eskumenen eta erakunde horiek izatearen aurkako zuzeneko erasoak dira eta udalgintzari oso kolpe gogorra eragiten diote. Lege horrek izaera birzentralizatzaile nabarmena du, herritarren zerbitzura dauden administrazioen funtzionamendua murriztu eta mugatu egiten du neurri handi batean, eta udal asko eskuak lotuta eta herritarren premia larrienei erantzuteko ahalmenik gabe geratzen dira.

Lege horren aplikazioa guztiz desberdina da toki-korporazioek erregistratzeko garaian jasotzen duten tratuari dagokionez; izan ere, toki-korporazioek beti aurrekontu-oreka aurkeztu behar dute, baina autonomia-erkidegoetako eta estatuko administrazioei defizit fiskalak aurkeztea ahalbidetzen zaie, eta, beraz, jarduteko marjina handiagoa dute. Azken batean, Lege horrek ezarritako eta Lege horretatik eratorritako betebeharrak egiaztatzen dute Toki Erakundeak, herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak izanik, Estatu Espainolaren egiturazko krisi-egoera ordaintzen ari direla sistema publikoaren kaltetan eta finantza-sektorearen eta eliteen interesen mesedetan, argi eta garbi.

Hortaz, birzentralizazio-politiken eta muturreko herstura ekonomikoko politiketarik eratorritako murrizketa sistematikoaren aurrean, ezinbestekoa da, alde batetik, arau-autonomia eta arau-ahalmen handiagoa ematea udalei, eta, bestetik, udalak ez behartzea kutxan superabitak metatzera inbertitzeko gaitasunik izan gabe, edo superabit horiek zorra amortizatzeko erabiltzera behartzea. Toki Erakundeek gizarte-kohesioa bermatzeko, tokiko produkzio-sarea sendotzeko, langabezia murriztuko duen ekonomia-jarduera sortzeko eta okerren igarotzen ari direnei laguntzeko behar baitituzte baliabide horiek.

Europako herrialde guztietan aldaketa instituzionalak, eta, batez ere, gobernuaren toki-mailari dagozkionak toki-autonomia indartzera bideratuta daude; aitzitik, Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legea kontrako norabidean bideratuta dago.

Montororen gobernuak indarrean jarritako lege honek hainbat udalei zailtasunak ezarri dizkie, bai Hego Euskal Herrian, eta baita hain ezaguna den Madrilgo Udalean ere, beraien tokiko autonomia mugatuz eta herritarrei eman beharreko lehen zerbitzuak murriztuz.

Adierazitako guztiagatik, Zarauzko Udalak honako hau erabaki du:

1.- Zarauzko Udalak ez du onartzen Madrilgo Gobernuak 2012ko apirilaren 12an onartu eta aplikatu zuen Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren edukia.

2- Zarauzko Udalak bere elkartasuna adierazten die murrizketa egoera hau pairatzen hari diren Hego Euskal Herriko udal guztiei eta aipatutako Madrilgo Udalari.

3.- Zarauzko Udaltzarrak Estatuko Gobernuari eskatzen dio ekin diezaiola Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoa eta Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua erreformatzeari. Erreforma horrek gastu-arauaren erregulazioa aldatu beharko luke, eta aurrekontu egonkortasunari, finantza iraunkortasunari eta berankortasun-kontrolari buruzko irizpideak betetzen dituzten Tokiko Korporazioei aukera eman beharko lieke berriro inbertitzeko superabit fiskala eta, bestetik, lehentasuna emateko oinarritzko zerbitzu publikoetarako beharrezkoa den gastuari, zor publikoaren ordainketak egiteko kredituen gaintik, horretarako, Tokiko Korporazioei ezarritako aurrekontu-baldintza Estatuari eta Erkidegoei eskatutakoarekin parekatuta.

Eztabaida amaitutakoan bozkatzeari ekin diote, eta hauxe izan da emaitza:

Aldeko botoak:	20	(aho batez)
----------------	----	-------------

Horrenbestez, IRABAZI ZARAUTZ eta EH BILDU udal taldeek aurkeztutako mozioa onartzea ERABAKI DU, aho batez, Udaltzarrak.

11.- EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:

– Mozioa: Eskualdeko Lanbide Heziketaren alde

2017 O 001 0032 espedientea

Era berean, EH BILDU udal taldeak aurkeztutako proposamena irakurri dute, EAJ-PNV taldeak egindako elkarpenak sartuta. Hona hemen testua:

ESKUALDEKO LANBIDE HEZIKETAREN ALDEKO MOZIOA

Urola Kosta eskualdean lanbide heziketa arloak garrantzi handia du, gazte eta langabetu askok lan mundura salto egiteko ezinbesteko prestakuntza lana burutzen baitu. Berrikuntza teknologikoan eta enpresa sare zabal batean oinarritutako lanbide heziketan urteetako tradizioa duen eskualdea gara, eta ezinbestekoa da hezkuntza mota hori ere babestu eta sustatzea.

Hala ere, udal eta udal elkarteko administrazioetan hezkuntza arloan lanean ari direnengandik laguntza ekonomikoen premia larrien ahotsak entzuten ari gara behin eta berriro, dagokion hezkuntza saileko arduradunen aldetik iristen ez den erantzun azkar eta eraginkorraren zain.

Inbertsioak egin ahal izateko eskualdeko udal elkarteari laguntza eskatu zaio Lanbide Heziketa arlotik eta garbi dugu tokiko administrazioetatik, hezkuntza komunitatearekin elkarlana bultzatu eta kalitatezko hezkuntza sistema izan dezagun, halako eskaerei erantzun egin behar dieguela, eskumena duen Hezkuntza Sailari hartu beharko lituzkeen konpromezuak betetzeko eskatuz.

Jaurlaritzak eta Hezkuntza Sailak aplikatutako murrizketak salatu izan ditu EH Bilduk, eta orain gure eskualdean hainbat ikastetxe pairatzen ari diren egoera murrizketa horien ondorio garbia da.

Legebiltzarrean aurrekontuak lantzen ari diren garai honetan, Lanbide Heziketako ikastetxeen inbertsio beharrei erantzuteko neurri egokiak proposatu nahi ditugu.

Aipatutako kontuan izanik, Zarauzko Udalbatzarrak honako puntuak onartzen ditu:

MOZIOA

1. Zarauzko Udalbatzarrak adierazten du pertsonak (ikasle, irakasle zein langileak, baita langabetuak ere) euren prestakuntza bermatzeko baldintza duinak ziurtatu behar direla; horrekin batera, tokiko garapen jasangarria, berrikuntza eta ikerketa, sortzailtza eta ekintzailtza, nazioarteratzea eta metodologia aurreratuak izan behar dira hezkuntzako ardatz nagusiak.
2. Zarauzko Udalbatzarrarentzat helburu izan behar du Lanbide Heziketaren kalitatea areagotzeak, garapen pertsonalera eta lan-jardunera bideratutako prestakuntza-eskaintza osatzeak, pertsonen lanbiderako gaitasunak bizitzan zehar hobe daitezen sustatzeak, enplegu egonkor eta kalitatezko aukerak areagotzeak, erronka eta proiektuen emaitzen arabera ikaskuntzaren ikuspegian oinarritutako sistema malguak eratzeak, ikasketen uzte goiztiarraren eta eskola-porrotaren aurkako politikei balore positiboak eta laguntza emateak, eta trebetasun sozialak, komunikazio-gaitasuna, enpatia eta abar sustatzeak.
3. Zarauzko Udalbatzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio 2018ko aurrekontuetan Lanbide Heziketako ikastetxeetan egin behar diren inbertsioei irtenbide integral eta egokia emateko aurrekontu partidak sor eta bultzatu dituzala, hurrengo urteetan ere arazo horri erantzun dion plangintza bati jarraituz.
4. Zarauzko Udalbatzarrak agente ekonomiko eta sozialei Lanbide Heziketarekiko konpromezua eskatzen die. Bereziki, eskualdeko enpresei gazteen heziketarekin eta enpleguarekin zuzenean konprometitu daitezela eskatzen die, enpresa bakoitzaren aukeren arabera, LHko zentroekin elkarlana sustatuz, programetan parte hartuz eta hitzarmenak sinatuz, betiere ikaslearen formakuntza helburu izanik, eta praktikaldi eta lan-baldintza duinak errespetatuz.

5. Mozio honen berri EAE-ko Legebiltzar Taldeei, Hezkuntza Sailburuari, Urola Kostako Udal Elkarteari eta eskualdeko Lanbide Heziketako ikastetxeei emango zaie.

Udal taldeek beren iritzia eman ondoren, proposamena bozkatzeari ekin diote. Hona hemen emaitza:

Aldeko botoak:	20	(aho batez)
----------------	----	-------------

Beraz, Udalbatzarrak ERABAKI DU, aho batez, transkribatutako mozioa onartzea.

12.- ESKARI-GALDERAK

Ez du inork hitz egin.

Eta aztertzekeo besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, osoko bilkurari amaiera eman diote, iluntzeko zortzi eta erdietan, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.